## DEIERRIKO UDALA: BIZIKLETA ELEKTRIKOAK ALOKATZEKO KONTRATUA

1. Deierriko Udalak (IFK: P312600C) bizikleta elektrikoak eta osagarriak alokatzeko zerbitzua eskaintzen du.

2. Alokairu-zerbitzu hori erabili nahi duen pertsona edo erakundea, aurrerantzean erabiltzailea, arduratuko da bizikleta eta osagarri guztiak (tresnak, kaskoa, giltzarrapoa, etab.) zaintzeaz eta itzultzeaz, eta kontratu honen 8. puntuaren arabera dagozkion tarifak ordaindu beharko ditu.

3. Bizikletak eta, hala badagokio, alokatutako osagarriak, behar bezala homologatuta daudenak eta segurtasun-neurri guztiak eta eska daitezkeen merkataritza-berme guztiak betetzen dituztenak, alokatzean jaso ziren egoera berean itzuli behar dira, eta erabiltzaileak bere gain hartuko du eragindako edozein kalte.

4. Erabiltzaileak bizikletak behar bezala zaindu eta babestu behar ditu uneoro, bizikletak bistan ez dituenean.

5. Bizikleta eta haren osagarriak lapurtu, ebatsi, suntsitu edo kaltetuz gero, erabiltzaileak segurtasun-indarren aurrean salatu beharko ditu gertakariak, eta Deierriko Udalari jakinarazi beharko dizkio. Horrez gain, salaketaren kopia Udalari eman beharko dio, gehienez ere 24 orduko epean, faltaren edo delituaren berri duenetik zenbatzen hasita.

6. Bizikleta lapurtu edo ez itzuliz gero, Udalak bizikleta eta lapurtutako materiala osorik kobratzeko eskubidea izango du.

7. Materiala lapurtu, ebatsi, galdu edo hondatzen bada, erabiltzaileak lapurtutako edo hondatutako materialaren zenbateko osoa ordaindu beharko dio Udalari.

8. Osagarrien eta osagaien balioa merkatuko prezioaren arabera finkatuko da, bizikletaren modeloaren arabera. Bizikleta lapurtu edo ostuz gero, kostua bijartzearena izango da.

9. Bizikleta/k atzerapenarekin itzuliz gero, ordainduko den tarifa izango da bizikleta erabiltzailearen eskura egon den denbora osoari dagokiona, eta gutxieneko tarifa egun erdikoa izango da, alokairu-fitxan zehazten dena.

10. Kreditu-txartel bat eduki beharko da bizikleta bakoitza alokatzeagatik **25 euroko** gordailua uzteko, eta gordailu hori berreskuratuko da bizikleta alokatu zen egoera berean itzultzen denean. Fidantzaren helburua izango da bizikletaren eta alokatutako osagarrien kalteak edo galtzeak estaltzea. Alokairuaren tarifa eta fidantza osorik eta aldez aurretik ordainduko dira alokairua formalizatzen den unean.

## CONTRATO DE ALQUILER DE BICIS ELÉCTRICAS. AYUNTAMIENTO VALLE DE YERRI

1. El ayuntamiento del Valle de Yerri, con CIF: P312600C, ofrece un servicio de alquiler de bicicletas eléctricas y accesorios.

2. La persona o entidad interesada en hacer uso de dicho servicio de alquiler, en adelante el usuario, es responsable del cuidado y devolución de la bicicleta y de todos los accesorios (herramientas, casco, candado, etc.) y se obliga al abono de las tarifas correspondientes según el punto 8 del presente contrato.

3. Las bicicletas y en su caso, los accesorios alquilados, que están perfectamente homologados y cumplen todas las medidas de seguridad y las garantías comerciales exigibles, han de ser devueltas en el mismo estado en el que se recibieron al ser alquiladas, haciéndose cargo el usuario de cualquier desperfecto ocasionado.

4. El usuario está obligado en todo momento a vigilar y proteger correctamente las bicicletas cuando no las tenga a la vista.

5. En caso de robo, hurto, destrucción o daños sobre la bicicleta y sus accesorios, el usuario tendrá la obligación de denunciar los hechos ante las fuerzas de seguridad y notificarlas al Ayuntamiento del Valle de Yerri, así como hacer una entrega de la copia de la denuncia al ayuntamiento en el plazo máximo de 24 horas desde que tenga noticias de la falta o delito.

6. En caso de robo o no devolución de la bicicleta, El ayuntamiento se reserva el derecho al cobro íntegro de ésta, así como del material sustraído.

7. Si se produjera el robo, hurto, pérdida o deterioro del material, el usuario tendrá la obligación de abonar el ayuntamiento el importe total del material sustraído o deteriorado.

8. El valor de los diferentes accesorios y componentes se fijará según precio de mercado en relación al modelo de la bici. En caso de hurto o robo de la bicicleta, el valor será el de reposición.

9. El retraso en la devolución de la/s bicicleta/s supondrá el abono de la tarifa correspondiente al tiempo total en el que la bicicleta esté a disposición del usuario, estableciéndose como tarifa mínima la correspondiente a medio día, que se especifica en la ficha de alquiler.

10. Será necesario disponer de una tarjeta de crédito para constituir un depósito de **25 €** por alquiler de cada bicicleta, depósito que será reintegrado en el momento de su devolución en el mismo estado que fue alquilada. La fianza tendrá como objeto cubrir posibles desperfectos, pérdidas o daños de la bici, así como de los accesorios que se hayan alquilado.

11. Erabiltzaileak baimena ematen dio **Deierriko Udalari** bizikletetan izandako kalteen zenbatekoa edo galerari dagokion zenbatekoa bere kreditu-txartelean zorduntzeko, 8. klausulan zehaztutako balioen arabera.

12. Deierriko Udalak berme hori erabili beharko balu, dagokion zordunketa egingo du, emandako gordailua deskontatu ondoren, hala badagokio.

13. Bizikletaren erabiltzaileak konpromisoa hartzen du indarrean dauden trafiko-legeak eta -arauak errespetatzeko, eta bizikleta erabiltzean izandako edozein istripuren ondorioz eragindako kalte guztien erantzulea da. Era berean, Udalak ez du bere gain hartuko lege horiek haustearen ondoriozko isunik edo zigorrik.

14. Erabiltzaileak ezagutzen ditu bizikleta bat gidatzeak dakartzan arriskuak, eta bera da bizikleten erabilera normalak edo anormalak bere buruari, hirugarrenei edo edozein ondasun higigarriri edo higiezini eragindako kalteen erantzule bakarra.

15. Udalak ez du bere gain hartzen erabiltzaileak bere buruari edo hirugarrenei eragindako gorputz- edo material-kalteengatiko erreklamazioen erantzukizunik, ez eta bere jabetzako objektuengatik.

16. Kontratu hau aplikatzean sortutako edozein zalantza edo gatazka dagokion auzitegi eskudunen aurrean ebatziko da.

17. Kexarik edo erreklamaziorik izanez gero, erabiltzaileak bete ahalko du Udalaren bulegoan bertan eta web orriaren bidez bere esku jarritako inprimakia.

18. Kontratu hau kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide guztiak betetzen eta errespetatzen ditu, aplikatzekoa den Espainiako legeriarekin bat etorriz.

**Deierrin, 202___(e)ko ______________(a)ren ___(e)an**

El pago de la tarifa de alquiler y la fianza siempre se realizarán íntegramente y por adelantado en el momento de formalizar dicho alquiler.

11. El usuario autoriza al **Ayuntamiento del Valle de Yerri** al cargo en su tarjeta de crédito del importe de los daños sufridos en las bicicletas, y del importe correspondiente al daño o pérdida sufrido según los valores especificados en la cláusula 8.

12. En caso de que el ayuntamiento del Valle de Yerri tuviera que hacer uso de esta garantía, se procederá al cargo correspondiente, previo descuento del depósito entregado si fuese el caso.

13. El usuario de la bicicleta se compromete a respetar las leyes y normas de tráfico vigentes y es responsable de todo daño causado como consecuencia de cualquier accidente durante el uso de la bicicleta. Así mismo, el Ayuntamiento, no se hace responsable de ninguna multa o sanción derivada de cualquier infracción de dichas leyes.

14. El usuario conoce los riesgos que implica conducir una bicicleta y es el único responsable de los daños causados a sí mismo, a terceras personas o cualquier bien, mueble o inmueble, por la utilización o uso normal o anormal de las bicicletas.

15. El Ayuntamiento no se hace responsables de reclamaciones por daños corporales o materiales ocasionados a sí mismo o a terceras personas por parte del usuario o a objetos de su propiedad.

16. Para la resolución de cualquier controversia o conflicto surgido en la aplicación del presente contrato, se realizará ante los tribunales competentes que correspondan.

17. En caso de queja o reclamación, el usuario podrá rellenar el formulario puesto a su disposición en la propia oficina del Ayuntamiento, así como a través de la web.

18. El presente contrato se ajusta y respeta todos los derechos de los consumidores y usuarios de conformidad con la legislación española que resulte aplicable.

**En el Valle de Yerri,**
**a_____ de ______________ de 202___**

**Ayuntamiento Valle de Yerri**
**Deierriko Udala**
**CIF / IFK: P312600C**

**Firma y sello / Sinadura eta zigilua**

**Usuario/a / Erabiltzailea: _________________________**

**DNI / NA: _____________________________**

**Firma / Sinadura**